

Atsedenen ondorioez


Azken hilabete eta aste hauetan, Aldudeko ibarrean zorigaitz franko gertatu zaigu: bat bertzearen ondotik zendu dira hainbat herritar, gazterik, batez ere minbizia-rengatik. Ohi den bezala, jendeak eta predikariek azpimarratu dute presuna horien “kuraia gaitzaren kontra”, “ihardukitzeko” eta azken uneraino “oldartzeko eta borrokatzeko indarra”, eritasunaren “zuzengabeko garaipenari amore eman arte”.

Erran-molde horiek gogorarazi didate Marc Billaud ikerlari kantzerologoak, Julie Henry filosofoak eta Pierre Sujobert hematologoak *Le Monde Diplomatique* astekaridan idatzi *Trompeuses métaphores du cancer* (Minbizi metafora engainatzaileak) artikulua (750 zb., 2016ko buruila, 28. or.). Susan Sontagek *Illness as Metaphor* (1978) (Eritasuna metafora gisa) kritika liburuaren ildotik, erakusten dute gaur egundaino biziki arrunki aipatzen dela minbizi gerla, asozialtasuna eta erotasunaren metaforak erabiliz: soziopataren gisa, zelula gaiztoak ez ditu errespetatzen zelula sanoen komunitatearen arauak; bere burua baztertzen du psikopaten gisa; bortizki kolonizatzen ditu gorputzeko gune berriak; ondorioz, eri den presuna bera asozial, ero edo lanjerostzat dauka gizarteak, eta maiz “barkatzen ez duen eritasuna” eufemismoaren bidez soilik deitzen dugu minbizi. Bizkitartean, epaiketa moralen bidez aipatuz minbizi, ustekabeen areagotzen diegu mina sufritzen duten presunei. Gehiago dena, gero eta gehiago uztartzen dira gerla eta minbizi solas publikoetan: gatazkan sartuak gara eritasunaren aurka; kanpaina abiatua da minbiziaren kontra, armak prestatzen ditugu haren kontra ihardukitzeko; hedabideetan, terrorista islamistak zelula gaiztoei konparatzen dira, eta



Katixa Dolhare-Zaldunbide

IDAZLEA



Antton Olariaga

haien kontrako eraso bortitzak (bazter sanoak berdin errausten dituztenak) beharrezko terapiari.

Hots, eta etxeko auzoan berean frogatu dut, inplizituki galdegina zaio eriarri soldadu kementsu eta heroi-koa izatea, etsaiari gogor egiteko, eta ez otoi ahalkegarriki amore ematea, koldar edo traditzaileen gisa. Zinez, ikaragarriko presioa ezarria zaio, iduri eta gure beldur psikologiko, sozial eta politikoez nahi gabe kargatzen dugula. Jakinez, gainera, estresak balukeela zer ikusirik minbiziaren garapenarekin, metafora arruntez josi solasek egoera okertu baizik ez dezakete egin.

Testuinguru horretan, medikuntza ezta gero eta beharrezkoagoa agertzea ez da harrigarri: fitoterapia, naturopatia, Ekialdetik etorritako meditazio eta lasaitze saioak... Baina gure mintzatzeko moldea ere beharko genuke menturaz artatu, eta kasu eginez erabili delako metafora haiek, eriak baztertzen, kondentatzen, hobendun sentiarazten dituztenak.

Urrunago joateko, nago ez ote dugun nahigabe berdintsua eragiten Historiako garai batzuk “depresiboak” deituz, adibidez mundu mailan Mendebaldeko gizarte kontsumistaren aro garaikidea, edo Euskal Herrian euskararen erabilera nekatzen ari den gaurko garai hau.

Beste batzuen artean, XIX. mendean Alexis de Tocqueville filosofoak nabarmenki erabiltzen zuen eritasunaren metafora demokraziak eragin gaitzak aipatzeko, eritasun berezirik izendatu gabe, haatik.

Nik ez daukat sendagailu segurik proposatzeko, baina bai eriak hobeki laguntzeko, bai guharen burua ez eritizat jotzeko, saia gaitzke eztitasunez mintzatzeko, umorea eta jokoaren bidez, metafora baikorrak edo bake-tzaileak erabiliz. ■